

G9aren Unibertsitate Aldezleen VIII. Topaketa

Errioxako Unibertsitateak antolatua

Logroño, 2013ko irailaren 12-14

Gaiari buruzko eztabaida prestatzeko testua

Ezohiko gutxiegi-indize altuak dituzten irakasgaiak

Itziar Etxebarria, UPV/EHUren Aldezlea

Gai honek unibertsitate-aldezle ugari kezkatzen ditu, agerian gelditu zen bezala aurtengo urtarrilean CEU Cardenal Herrera Unibertsitateko Aldezle Marta Elena Alonso de la Vargak planteatutako galdera baten harira izan zen mezu-truke batean. Marta Elenak egin zigun galdera hau zen: “Ba al dakizue ba ote dagoen azterketa ofizial bat gainditu behar duten ikasleen gutxieneko kopuru bat ezartzen duen araurik, eta gutxieneko kopuru hori egon ezean, azterketa errepikatuko al litzatekeen?”

Irakasgai batzuetan egon ohi den gutxiegi-kalifikazioaren kopuru neurrigabea unibertsitate guztietan gertatzen den arazo bat da; haietako askok, gainera, kasu “historikoak” dituzte, justifikaziorik ez badute ere eta ikasle askori sufrimendua eragiten badiete ere, sarritan unibertsitateari berezkoak zaizkiola jo izan direnak, eta haren folkloreak zatitza hartu direnak, tunaren edo hasiberriei egiten zaien txantxen antzera. Baina, zenbateraino dago zabaldua? Ez da erraza esaten, baina gauza segurua da gure testuinguruan ez dagoela halako kasu deigarririk ez duen unibertsiterik. Hurbilketa moduan, aipa dezakegu, 2009/02/12ko *El Periódico de Aragón* egunkariaren arabera, Zaragozako Unibertsitatean, irakasgaien % 5ek porrot-indize kezagarriak metatzen dituela. Gainera, erantsi beharra dago fenomenoaren ez dela arlo jakin batera bakarrik mugatzen, baizik eta jakintza-arlo guztietan gertatzen dela.

UPV/EHUren Aldezlearen bulegoak oso ibilbide laburra du oraindik, eta, berriki soilik, eta zeharka, gai honi buruzko kezu bat planteatu zaigu. Hala ere, testu labur honetan auzia zer egoeratan dagoen deskribatzen saiatuko naiz, eta eztabaidarako baliagarriak izan daitezkeen puntu batzuk planteatzen.

Espainiar unibertsitateen araudia

Marta Elenaren galderari emandako erantzunak aztertu ondoren, baita eskuratu ahal izan ditugun espainiar unibertsitateetako araudiak ere, haietako batzuk mezu-truke horretan aipatu gabeak, gure ondorioa da ez dagoela azterketa ofizial bat gainditu behar duten ikasleen gutxieneko kopuru bat seinalatzen duen ezein arau orokorrik eta, gainera, espainiar unibertsitate askotan –gehienetan, agian– ez dutela gaiari buruz ezer zehazten euren

araudietan. Bestalde, gaia kontuan hartzen duten unibertsitateek funtsean planteatzen dute beharrezkoa dela irakasgai batean emaitza ezohikoak dituzten kasuak aztertzea, nondik sortzen diren ulertu ahal izateko eta neurriak hartzeko (normalean, gutxiegia kopurua neurrigabea duten irakasgaiak izaten dira, baina unibertsitate batzuek ere kontuan hartzen dituzte kalifikazio oso altuen edo bestelako ezohiko emaitzen kopuru neurrigabea dutenak); oso unibertsitate gutxik zehazten dituzte araudietan egoera honen eragina nozitzen duten ikasleen aldeko neurri zehatzak. Kasu bakar bat aurkitu dugu ikasleei ebaluazioa errepikatzeko eskubidea planteatzen duena, geure unibertsitatekoa, hain zuzen, eta bada beste kasu bat, Kanaria Handiko Las Palmaseko Unibertsitatekoa, deialdia kontuan ez hartzea planteatzen duena.

Ondoren, hainbat espainiar unibertsitatetan irakasgai bateko ezohiko emaitzak arautzen dituzten arauak biltzen dira.

SEVILLAKO UNIBERTSITATEA

Gobernu Kontseiluak 2009ko irailaren 29ko bileran onartutako Irakasgaien Ebaluazio eta Kalifikazioaren Araudiaren Bigarren Xedapen Iragankorrek ezartzen du:

“1. Los miembros de la comunidad universitaria podrán plantear ante las Comisiones de Docencia de Centros y Departamentos solicitud de resolución de los conflictos planteados, en el ámbito respectivo, en la planificación y desarrollo de los procedimientos de evaluación. Quedan excluidos expresamente del ámbito de esta disposición adicional las revisiones de las calificaciones provisionales y los recursos de apelación contra las calificaciones definitivas, que se atenderán a lo regulado en el capítulo III de la presente normativa.

2. La solicitud de resolución de conflicto se presentará mediante escrito razonado dirigido al Decano o Director del Centro o el Director del Departamento, según el ámbito de la Comisión de Docencia ante la que se plantea la solicitud, que se entregará en la Secretaría del Centro, o en el Registro General de la Universidad.

3. La Comisión de Docencia analizará el escrito de solicitud y, oídas las partes en conflicto, resolverá en el plazo máximo de un mes desde la presentación del mismo, considerándose los periodos no lectivos de agosto, Navidad, Semana Santa y Feria de Sevilla como inhábiles a estos efectos.

4. El Presidente de la Comisión de Docencia comunicará por escrito la resolución al solicitante y demás partes en conflicto y, en su caso, al órgano unipersonal de gobierno competente para su ejecución o conocimiento. Caso de que la Comisión estimare que hay indicios de falta disciplinaria, lo comunicará directamente al Rector.”

Araudi horrek ez du ezohikoak diren emaitzen kasuen berariazko aipamenik egiten, baina pentsa liteke "gatazkak konpontzeko eskaria" izango litzatekeela bidea ikasleen kexei erantzuteko, irakasgai batean gutxiegia kopuru ezohiko bat gertatzen denean.

KANTABRIAKO UNIBERTSITATEA

2008ko abenduaren 16ko Gobernu Kontseiluak onartutako Kantabriako Unibertsitateko Ebaluazio Prozesuen Arauen 17. puntuak honela ezartzen du:

“La Universidad de Cantabria hará públicos datos estadísticos de los resultados académicos de cada asignatura, que incluirán al menos el número de estudiantes matriculados, presentados y aprobados.

Sobre las asignaturas en las que estos porcentajes sean excepcionales, y en todo caso, sobre aquellas en las que el número total de aprobados en el curso académico sea inferior al 35% de los estudiantes matriculados, la Junta encargará al Departamento responsable de la asignatura un informe donde se analicen las circunstancias que han causado esta situación.

Anualmente, las Juntas de Centro deberán elaborar y remitir a la Comisión Académica de Control de los Procesos de Evaluación un informe global por titulación sobre los resultados de la evaluación en las diferentes asignaturas. Este informe será analizado igualmente en la Comisión de Ordenación Académica de la Universidad.”

Araudi horrek ezohiko emaitzen kasuak aztertze beharra planteatzen du, baina soilik nahiko edo aurkeztuen ezohiko kopuru bat duten irakasgaietara egiten die aipamena, ez kalifikazio altuen kopuru neurrigabeak edo beste ezohiko emaitza batzuek dituzten irakasgaietara. Ez du aipatzen azterketa errepikatze aukera, ezta beste neurri zehatzik ere egoerak ukitu dituen ikasleen alde.

GRANADAKO UNIBERTSITATEA

1997/98 ikasturtean indarrean sartu zen Irakaskuntza Plangintza eta Azterketa Antolakuntzaren Araudiaren Lehen Xedapen Gehigarriak dio:

“En aquellas asignaturas cuyos índices de fracaso escolar sean superiores al 70% sobre los estudiantes presentados en las convocatorias ordinaria y extraordinaria, la Comisión de Ordenación Académica y Convalidaciones, asesorada por especialistas del Área, solicitará a los profesores/as responsables que aporten las razones académicas que, en su caso, puedan justificar dicho fracaso. Los Departamentos y Centros aportarán los informes que se estimen oportunos.”

Aurrekoan bezala, araudi honetan porrot-indize oso altuak eragin dituzten faktoreak ikertzea eskatzen da, baina ez da zehazten egoerak ukitu dituen ikasleen aldeko ezein neurririk hartzea.

CARTAGENAKO UNIBERTSITATE POLITEKNIKOA

Ilido beretik aurkeztu da Cartagenako Unibertsitate Politeknikoko araudia. 2011ko abenduaren 22ko Gobernu Kontseiluak onartutako Eskuduntza Profesionalak dituzten Graduak eta Masterreko Titulu Ofizialen Ebaluazio Proben Araudiaren 25. artikulua ezartzen du:

“Cuando en un Curso Académico el porcentaje de estudiantes aprobados en una asignatura en un grupo, sea inferior al veinte por ciento de los estudiantes calificados y a petición de la Delegación de Estudiantes del Centro, el Director de Departamento abrirá un procedimiento informativo en el que se determinen las posibles causas que han influido negativamente y se recoja una propuesta de medidas que puedan contribuir a la mejora del rendimiento académico en la asignatura.”

ZARAGOZAKO UNIBERTSITATEA

2010eko abenduaren 22ko Gobernu Kontseiluaren Erabakiz onartutako Ikaskuntzaren Ebaluazio Araudiaren 19. artikulua honako hau biltzen du:

“Actuaciones vinculadas a la tasa de éxito académico.

1. Aquellas asignaturas cuya tasa de éxito académico, entendida como el porcentaje de estudiantes aprobados sobre los presentados, sea inferior al cuarenta por ciento en el curso anterior, serán objeto de análisis por la comisión de evaluación de la calidad de la titulación.
2. Del mismo modo, analizará de oficio aquellas asignaturas cuya tasa de éxito supere el noventa y cinco por ciento o la diferencia entre las calificaciones más alta y más baja de los aprobados no exceda de dos puntos.
3. Dicha comisión, tras el análisis y estudio pormenorizado de la situación, oídas todas las partes afectadas y con responsabilidad directa en el asunto, propondrá, en su caso, medidas tendentes a mejorar la calidad de la titulación.”

Ikus daitekeen bezala, araudi honetan gutxiegi kopuru neurrigabe bat gertatzen den kasuak hartzen dira kontuan, baita beste mota bateko ezohiko emaitzak izaten dituzten beste batzuk ere, baina ez da aipatzen azterketa errepikatze aukera, ezta egoerak ukitu dituen ikasleen aldeko beste ezein neurririk.

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA

2011ko abenduaren 15eko Gobernu Kontseiluaren Erabakiz onartutako Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Ebaluazio Prozesuen Araudiaren 30. artikulua ezartzen du:

“Situaciones de resultados académicos excepcionales.

1. Aquellas asignaturas cuyo índice de suspensos alcance o supere el 75% de los estudiantes presentados en cada convocatoria, durante dos semestres académicos consecutivos, serán objeto de revisión por la Comisión de Garantía de Calidad del Centro.
2. Del mismo modo, la Comisión de Garantía de Calidad del Centro revisará de oficio aquellas asignaturas cuyo índice de aprobados supere el 95% de los presentados o el rango de las calificaciones de los aprobados no exceda de un punto.

3. Dicha Comisión, tras el análisis y estudio pormenorizado de la situación, oídas todas las partes afectadas y con responsabilidad directa en el asunto, trasladará un informe a la Junta de Centro que arbitrará, si lo considera necesario, alguna de las siguientes soluciones:
- a) Adaptación, si procede, de los contenidos y programa de la asignatura a las características propias de la misma exigidas por el programa formativo de la titulación.
 - b) Modificación, si es el caso, de los criterios de evaluación de las actividades.
 - c) Aplicación de mecanismos de evaluación por compensación.
 - d) Propuesta de “cursos 0”, de desdobles de grupos docentes, o de un nuevo perfil para la asignatura.
 - e) Cualquier otra decisión que a juicio de la Junta de Centro, y previa consulta a los órganos correspondientes, pudiera resultar efectiva para intentar disminuir el fracaso escolar de la asignatura en cuestión.”

Aurreko araudian bezala, araudi honetan gutxiegi kopuru neurrigabe bat duten kasuak sartzen dira, baita beste mota bateko ezohiko emaitzak dituztenak ere, baina ez da ezertxo ere esaten azterketa errepikatzeko aukerari buruz. Aldiz, aipatu egiten da ikasleen aldeko aukera gisa *konpentsazio bidezko ebaluazio-mekanismoak ezartzea*.

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

2013/2014 ikasturterako UPV/EHUren Ikasketen Gestiorako Arautegiaren 53.2 artikulua honako hau ezartzen du:

“Gratu Ikasketen eta Berrikuntzaren arloko Errektoreordetzak modu sistematikoan aztertuko ditu UPV/EHUko titulazioetako irakasgaietan ikasleek lortutako emaitza akademikoak. Horrela, kalifikazio hauek ikusita, behar diren neurriak hartuko dira ikasleen emaitzak emaitza orokorretatik desbideratzen direnean. UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluari eman beharko zaio hartzen diren neurrien berri.”

Baina, gainera, 49.2.e.5 artikulua ezartzen du ikasle bakoitzak *eskubidea izango duela proba berri bat egiteko* honako kasu honetan:

“Ikastegiko erreklamazio batzordeak hala erabakitzen duenean, azterketaren emaitzak anormalak iruditzen zaizkiolako, suspentsoen kopuru askoz ere handiagoa egon delako arrazoiz espero zitekeena baino gehiago irizpide akademikoak kontuan hartuta, hots, titulazioaren testuingurua eta kasuan kasuko irakasgaiak aintzat izanik.”

KANARIA HANDIKO LAS PALMASEKO UNIBERTSITATEA

2012ko azaroaren 26ko Gizarte Kontseiluak onartutako Titulazio Ofizialetako Aurrerabide eta Iraunkortasun Araudiaren 7.4 artikulua dio:

“Cuando un estudiante haya suspendido una asignatura y en esa convocatoria la tasa de éxito académico de dicha asignatura sea inferior al 30 por ciento de la media de esta tasa para el global de la titulación, al estudiante no se le computará la convocatoria.”

Beraz, aldez aurretik esan dugun bezala, araudi honek beste neurri zehatz bat planteatzen du ikasleen alde, ezohiko nahiko kopuru apala duten irakasgaien kasuetarako: *deialdia kontuan ez hartzea*.

Zenbait puntu eztabaidarako

Hasieran aipatu dugun mezu-trukean, zenbait aldezek gai honi buruzko proposamenak egiteko komenigarritasuna aipatu zuten. Zentzu horretan, interesgarria litzateke honako hau kontuan hartzea:

- 1) Unibertsitate-kalitateaz kezkatuta dauden aldeze eta irakasleei dagokienez, gaiari buruzko ofiziozko esku-hartze bat lantzen badugu, erreferentzia egin beharko genieke ezohiko gutxiegi kopuru altu bat duten kasuei, baita kalifikazio altu neurrigabeak edo beste ezohiko kopuruak dituztenei ere.
- 2) Hainbat unibertsitatetako araudian biltzen den moduan, planteatu beharreko alderdi funtsezkoena da, kasu guztietan, kasu partikularra sakon aztertzeko beharra: eskakizun-mailaren egokitasuna, irakaslearen irakaskuntza-ahalmena, ikasleen alde aurreko maila, ebaluazioaren ezaugarri zehatzak, irakaslearen nahia karrerako gogorrena izateko beste edozein gogoetaren gainetik, etab. Eta, horrekin batera, ondorioak ateratzeko eta etorkizunari begira egokiak diren neurriak hartzeko beharra: hain zuzen, gutxiegi kopuru altua duten kasuei dagokienez, eskakizun-mailak jaitea gehiegizkoak direla egiaztatzen denean; ikasleen alde aurreko prestakuntza hobetzea eskasa denean; edo irakasleari ohartarazpen serio bat egitea, antzematen denean arbitrariotasuna edo karrerako “zorrotza” izateko burugogorkeria duela, edo masifikazioak kezkatutako elkargo profesionalen baten interesei men egiten zaiela.
- 3) Era berean, argi dago gutxiegi masibo arrazoitu gabeen kasu bat nozitu duten ikasleek proba errepikatzeko eskubidea izan beharko luketela. Hala ere, horrek kontuzko auzi batzuk planteatzen ditu: nork jartzen du eta ebaluatzen du azterketa?, irakasleak berak, beste norbaitek, batzorde batek?
- 4) Merezi du, gainera, ikasleen aldeko beste neurri batzuk eztabaidatzea, besteak beste:
 - a) Deialdia kontuan ez hartzea, Kanaria Handiko Las Palmaseko Unibertsitateko araudian bildua. Egia esan, neurri hau aurrekoak dakar, baina, agian, egokia litzateke zehaztea.
 - b) Konpentsazio bidezko ebaluazio mekanismoak ezartzea. Neurri hori, NUPren araudian zehazki aipatua, ez zen ezohiko emaitzei buruzko beste araudi batzuetan kontuan hartzen, baina argi gelditzen da unibertsitate gehienetan sartu direla

Konpentsazio Epaimahaiak, besteak beste, erantzun bat emateko mota honetako egoerek sortutako arazoei. Hala ere, nire ikuspegitik, Konpentsazio Epaimahaiak, agian, beste arrazoi batzuek justifikatzen dituzte, baina ez honek. Ezohiko gutxiegi kopuru bat duen irakasgai bat konpentsatzea egoerari gezurrezko irtenbide bat ematea da. Ikaslea bidezko modu batean ebaluatzea da kontua, ez hura barkatzea edo irakasgai bat oparitzea zerbaitek ez duelako ondo funtzionatu.

Nolanahi ere, adierazi den bezala, komeni da aztertzea, beti eta kontu handiz, kasu zehatz bakoitza, bai etorkizunean irakasgaiaren irakaskuntza eta ebaluazioari buruzko ondorio egokiak ateratzeko, bai ikasleekin justuak izateko eta -garrantzi bera duena- irakasgaia ematen duten pertsona edo pertsonekin.

Azken zentzu horretan, oso kritiko izan behar genuke irakasleei eskakizun-maila jaisteko edo kalifikazio igotzeko egiten zaizkien eskakizunen aurrean, finantzaketan eragiten duten adierazleetako bat den porrot-indizea duten kontratu-programak betetzeko asmoz, edo egiaztapen-memoretan eta unibertsitateak gizarteari kontuak emateko txostenetan sartu diren arrakasta-tasetan edo antzekoetan eragin negatiboa ez izateko, edo irakaskuntza-kalitatearen irizpidetik at dagoen beste zeinahi irizpideri otzantasunez erantzuteko. Unibertsitateak ezin du bihurtu bigarren hezkuntzaren jarraipen huts bat, arrisku bat -errealitatea zenbait kasutan?- egungo espainiar unibertsitatean, hainbat unibertsitate-analisten bete-betean asmatuz adierazi duten bezala¹.

Badira zenbait unibertsitateetan, adibidez UDIMA (Universidad a Distancia de Madrid, pribatua), non -2013/06/8 *El Confidencial* egunkariak esaten zuenaren arabera- presio horiek eskandaluzkoak izan diren. Arazo hori, ziur asko, handiagoa izan arren unibertsitate pribatuetan, begi-bistakoa da publikoetan ere gertatu egiten dela.

Kontuz jokatu behar da, irakaslea errespetatua senti dadin, eta ez aginterik gabea. Guztiz garrantzitsua da irakasleari bere praktika azaltzeko aukera ematea, irakaskuntza- nahiz ebaluazio-arloan. Ez da errege-erregina, eta ezin du bere irakasgaiaren gogoak ematen diona egin. Baina argi dago, printzipioz, bere irizpideak dituela, errespetatu egin behar dela eta, gutxienez, entzun egin behar dela.

¹ Jesús Hernández, Álvaro Delgado-Gil eta Xavier Pericay (Edk.) (2013). *La universidad cercada. Testimonios de un naufragio*. Bartzelona: Anagrama.